

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

IRUÑA OKAKO UDALA

Eskumenak eskuordetzea

Alkatearen uztailaren 17ko 307/2019 Ebazpenaren bidez, alkateorde eta Gobernu Batzordeko kide Miguel Angel Montes Sanchez zinegotziaren esku utzi dira Ogasun eta Giza Baliabideen Arloko eginkizun hauek:

a) Udalaren ordezkari izatea Ogasun eta Giza Baliabideen Arloko jardueretan, alkateari dagokion ordezkaritza nagusiaren kalterik gabe, beste erakunde, entitate edo elkarteekiko era guztietako ekitaldi publiko, hitzarmen, kontratu edo harremanetan.

b) Ogasun eta Giza Baliabideen sailtako egungo zerbitzuak direla eta, dekretuak, ebazpenak eta jarraibideak ematea, egintza horien aurka jarritako errekursoak ebatzi beharra barne.

c) Egungo Ogasun eta Giza Baliabideen sailei dagokienez, betearazte organoen erabakiak argitaratzea, egikaritzea eta betearaztea.

d) Ordainketa aginduak ematea eta, zernahi bidetatik bada ere, ordainketa gauzatzea eta ohiko kontaketa aktak izenpetzea.

e) Administrazio zerbitzuen antolaketa kudeatzea.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da.

Iruña Oka, 2019ko uztailaren 18a

Alkate-lehendakaria

JOSÉ JAVIER MARTÍNEZ GARCÍA